



Tradegin: Tradiziozko dantza garaikidea egin 2016



Eka. 24 - Eka. 26 2016

Kod. 191-16

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2016

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Eka. 24 - Eka. 26 2016

Kokalekua

Bizkaia Aretoa

Hizkuntzak

Euskara

Balio akademikoa

30 ordu

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA



Azalpena

Aiko taldeak hamar urte daramatza dantzaren transmisioaren eta gizarteratzearen inguruan ikertzen eta lanean. Denbora honetan, irakasbide berri propio bat ere sortu du taldeak, dantzari eta dantzazaleen parte hartzea eta inplikazioa ardatz moduan izanda. Formen transmisioetik harago, dantzaren funtzio eta sustraiei erreparatuta (komunikazioa, harremana, partehartzea, gizarteratzea...), tradizioan eta bere transmisioan, sormenak eta sorkuntzak duten garrantzia azpimarratu nahi du ikastaro honek, eta horren inguruan inguruan diren hainbat esperientzi dantzari, dantzazale eta dantza maisuekin konpartitu. Dantza tradizionalen sormena hitza aipatzen delarik, ematen du eszenatokiko dantzei buruz ari garela. Hori horrela bada ere, sormena ez da bakarrik ikuskizunei begira isladatzen den prozesu bat, baizik eta tradizioen baitan eta dantzariaren baitan dagoen baliabide bat. Akademizazioak dantza nolabait estandarizatu duela esan daiteke, baina berez, egun ezagutzen ditugun plaza dantzetako moldeak seguraski askoz anitzagoak ziren edo izan zitezken, hain zuzen ere, dantzarien sormenaz baliatuz. Bi sormena mota hauek jorratu nahi ditugu: eszenatokietarako eginga dagoena eta dantzari bakoitzak plazan jorratzen duena, bere dantzakera eda bide batez tradizioa bizirik mantenduz.

Programa

2016-06-24

16:00 - 17:15	“Tradizio garaikidea: Gelajauziak eta Gelajota” Jon Maya Sein Kukai Dantza Konpainia - Zuzendaria
17:15 - 17:30	Atsedena
17:30 - 18:45	“Bikoaren bidea: Porruak sukaldatzen” JOSU GARATE Garate Suinaga
19:30 - 21:00	AZKUNA ZENTROA (Alondegiko Atarian - Bilbon) BANDtzaldia (Bilboko Musika Banda eta AIKO taldea) DANTZALDI ERROMERIA

2016-06-25

10:00 - 11:15	“Miarritzeko espatadantza eta Miarritzeko Sokadantza” Claude Iruretagoyena Uralde Maritzuli Konpainia - Zuzendaria
11:15 - 12:00	Atsedena
12:00 - 13:15	“Lindy Hopen sistema” Jesús Teran Martínez
17:00 - 18:15	“Dantza jauziak sortzen / Dantza jauzietan sortzen” Patxi Laborda Larrea AIKO Taldea
18:15 - 19:00	Atsedena
19:00 - 20:15	“Tradizioan sortzen” Juan Antonio Urbeltz Navarro ARGIA - Ikerfolk

2016-06-26

10:00 - 11:15	“Hirukoaren bidea: mazurka eta baltsarekin sortzen” Sabin Bikandi Belandia AIKO Taldea
11:15 - 12:00	Atsedena
12:00 - 13:15	“Portugaleko balsas mandadas” Mercedes Prieto Martínez

Zuzendaritza



Sabin Bikandi Belandia

AIKO Taldea kultur elkarte, Presidentea

Donostiako Kontserbatorioko goi-mailaren amaierako ohorezko saria eta Bilboko Kontserbatorioko ohorezko aipamena ganbera-musikan. Joxe Inazio Ansorenaren ikaslea; 1995ean Londresera joan zen graduatuondoko ikasketak amaitzera Sandrini Fundazioaren beka batekin. 1996an Etnomusikologiako Masterra amaitu zuen Goldsmiths' Collegen. 2000n Doktore egin zen Filosofian Londresko Unibertsitatean, Berrizko (Bizkaia) danbolinteroan izan zen Alejandro Aldekoari buruzko doktoretza-tesiarekin, John Baily Doktorearen zuzendaritzapean. Irakasle aritu izan da zenbait ikastetxe, institutu, musika-eskola, kontserbatorio eta abarretan. Interprete moduan aipatzekoa da Axlor taldeko kide moduan egindako lana eta Bilboko Udal Bandako txistulari moduan egindako 1989az geroztik. Azken urteotan dantza tradizionalako musika jotzen eta inprobisazioan espezializatu da. Estilo eta genero guztietako konposizioak eta moldaketak egin ditu. Txistulari aldizkariaren zuzendari izan zen 1992tik 1995era. MAX SARIA 2015.



Miren Gabantxo Uriagereka

UPV/EHU, Profesora e investigadora experta en Comunicación

Miren Gabantxo-Uriagereka (Bermeo, 1966). Irakasle eta ikertzaile iraunkorra (UPV/EHU). Kazetaria eta Komunikazioan Doktorea da UPV/EHU. Interneten Garapenerako Masterra egin zuen Mondragon Unibertsitatean. Zinegotzia da ere Bermeko Udalean. Campuseko Kultur Zuzendaria izanez EHUkultura programazioa egiteko eta (2008-2013) Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Medialab proiektu teknologikoaren Dekanordea. EITBn kazetaria izan zen 90.eko hamarkadan. 1996an hilabetea egin zuen bi atunontzi izoztazaileetan, Indiako Ozeanoan, Seychelles irlen inguruan, Hilario bere aitaren bizitza dokumentatzeko -Atlantiar eta Indiar Ozeanoetan tunaren arrantza industrialean aurrendaria izan baita bera-. Arrantzaleen artean bizitako esperientzia horren ondoren idatzi zuen "Atuneros congeladores, el cambio generacional y la transmisión del conocimiento tradicional" [Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía (25) : 33-36 (2003)].

Irakasleak



JOSU GARATE Garate Suinaga

Arkitekto dantzaria edo dantzari arkitektoa -eguraldiaren arabera- eta uzten didatenean musikaria Eibarko Kezka Dantza Taldean. Azkenengo urteetan dantza maisu nagusi, gaztetxo eta haurrentzako, behar den leku eta ordutan, molde tradizionaleko dantzetan. Argia Dantza Taldeko dantzaria J. A. Urbeltz antropologo eta folkloristaren gidaritzapean 1997a geroztik. Hamaika ikastarotan osotua dantza tradizionalaren errepertorioa batzutan zein dantza heziketaren pedagogia landuaz bestetan (Ikerfolk, Dantzan Ikasi, AIKO Taldea,...).



Claude Iruretagoyena Uralde



Patxi Laborda Larrea

Dantza maisu, koreografo eta txuntxuneroa. Ikuskizun ezberdinen gidoilari eta zuzendaria, dantzen berreskuratze edo birsortze prozesuetan aditua da. Neguko folklorea berzitua, hainbat lanak euskal dantzaz, neguko solstizioaz eta ihauterietaz egin ditu. Gaur egun Bilboko musika eskolako dantza maisu bezala aritzen da.



Jon Maya Sein

KUKAI KULTUR ELKARTEA, ZUZENDARIA eta DANTZARIA

6 urte zituela murgildu zen dantza munduan, Errenteriako Ereintza Dantza Taldean. Dantza tradizionalan jaso du bere formazio nagusia. Bakarleri gisa, 1997 eta 2005 urteen artean zazpi aldiz izan zen Euskal Herriko Aurrekulari Txapelduna. 1999 eta 2001 urteetan artean LAXOK taldeko partaide izan zen, eta proiektu horren ondotik, 2002. urtean, KUKAI Konpainia sortu zuen. Kukai Dantza Konpainian dantzari, koreografo eta zuzendari lanak betetzen ditu orduz geroztik, dantza tradizional eta garaikidearen arteko bideetan sakonduz. Bertan artista ugariarekin elkarlanean jarduten da. Hezitzaile gisa, 1997. urteaz geroztik Errenteria Musikal Musika eta Dantza Eskolako irakaslea da, eta Ereintza Dantza Taldean ere eskolak ematen ditu. Horren gain, hainbat tailer koreografiko eskaini ditu Euskal Herrian zein atzerriko jaialdi eta hirietan. Era berean, dantzaren sentsibilizaziorako hainbat proiektu zuzentzen ditu. Errenterian, Kukai Konpainiak eta Udalak kudeatzen duten egitarauaren arduraduna da.



Mercedes Prieto Martínez



Jesús Teran Martínez



Juan Antonio Urbeltz Navarro

Matrikula prezioak

MATRIKULA	2016-05-31 ARTE	2016-06-24 ARTE
MATRIKULA EXENTZIOA	20,00 EUR	20,00 EUR
INVITADO IRIZAR	0 EUR	-
OROKORRA	-	40,00 EUR

Kokalekua

Bizkaia Aretoa

Abandoibarra etorbidea. 48009- Bilbo

Bizkaia